

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Zentzugabekeriei buruz bi hitz

Asteon EH Bilduk Europako funtsei buruz egin duen proposamenari ELAk eman dion erantzuna ekarri nahi dut orriotara: shorturl.at/lpJ05. Hala dio ELAk: «...ezinbesteko jotzen dugu eskubide sozialen aitor-tortzan aurrera egitea, batezbesteko euro-parrarekiko dagoen atzerapena gainditzea osasunean, hezkuntzan eta zaintza sistemetan, eta euskal eredu produktiboaren erabateko aldaketa, trantsizio ekologiko eta soziala gauzatze aldera. Horrek eskatzen du erakundeak izatea aldaketaren aitzindari eta aurrekontu sendoak erabakitzea, zerga-erreforma justu eta nahikoa eginez». Ados nago funtsezko gai batean izan ezik: eskubide sozialak bermatuko dituzten zerbitzu publikoak erdiesteko eta, horrez gain, trantsizio sozioekologikoa gauzatzeko beharrezkoa den ekoizpen ehunaren erro-tiko eraldaketa (ELAk ondo dioen bezala) finantzatzeko ez da aski zerga erreforma bat, urrundik ere ez. Zerga erreforma progresiboena ere ez da nahikoa larrialdi ekologikoaren testuinguru historikoari bermeekin aurre egiteko. Kontuak ez dira ateratzen. Fiskalitate berri batez gain, zorra jaulki behar da. Eta hala ere ez da nahikoa aurrezki pribatuaren mobilizazioarekin eta enpre-sen inbertsio gaitasunarekin uztartzen ez bada. Horretarako, sektore publikoaren lidergoa behar da, eraldaketaren norabidea finkatu eta egiten den inbertsio publikoaren itzulkin soziala bermatu dadin, hain zuzen ere.

Ezkerrak ezin dio erronka klimatikoari eta hamarkada honetan trantsizio sozioekologikoak eskatzen duen eraldaketa material handiaren erronkari iskin egin, eta ezin du, ezta ere, industria sektore estrategikoak, hala nola automozioa, eraldatzeko beharraren aurrean ez ikusiarena egin. Bada, jarrera politiko honi eustek programatikoa koherente bat planteatzea eskatzen du. Europako funtsei uko egiten bazaie, dakartzaten arriskuak onartezinak direlakoan, Europar Batasunetik eta eurogunetik kanpoko euskal estatu bat eratzea defendatu

beharko da, burujabetza monetarioa eskuratu eta, horrela, zorpetzeari aurre egin ahal izateko (ez diot ELAri horrelakorik entzun). Bestela, koherentzia programatikorik gabeko ezker baten aurrean gaude, helburuak marraztu bai baina helburu horiek erdiesteko egin beharreko bidea izendatzeko ere gai ez dena.

Bestalde, ELAren esanetan, «EH Bilduk ahaztu egiten du funtsak baldintzatuta daudela: pentsioetan murrizketa gehiago ezarri behar dira, lan erreformak ez ukitu eta datozen urteetan austeritatean oinarritutako aurrekontu politikak ezarri». Galdera da: Zerk ekarri du neoknesianismo pandemiko hau? Zergatik eten dira 2008ko krisi ekonomiko-finantzariotik datozen politika austerizidak? Zergatik ireki da orain 2008an itxi zen txorrota? Bada, gaur errezeta berdinak aplikatuko baliara sortuko litzatekeen krisialdi sozialak Europako sistema politiko asko hankaz gora botako litzuzkeelako, Europar Batasunaren proiektua bera ezbaian jarritz; eta gaur garapen eredu neoliberalari eskuak libre utziko bali-tzaizkio kolapso ekologikoa ziurra litzatekeelako urte gutxiren buruan. Eta elite neoliberalari ere ez zaielako komeni bizitzaren oinarri materialak suntsitzea, ez eta sistema politikoak kolapsatu daitezen ere, garestiegi ateratzen zaielako.

Keynesianismo pandemiko hau parentesi labur bat izango den edo objektiboki huts egin duen neoliberalismoaren norabidea zuzenduko duen uhin luzeko joera berri baten hasiera ote den ez dago idatzita. Hain zuzen ere, horixe da momentu honetan jokoan dagoena. Hau-xe da garaiko bataila politiko nagusia, ELAk galdutzat ematen duena.

Bataila politiko hau kanpotik (mugimendu sozial eta sindikala) zein barrutik (erakundeak) egiteko aukera baztertzen bada, zer da proposatzen dena? Kontrabote-re sindikala? Langileriak gehien behar duenean batasun sindikala artikulatzeko gai ez dena? Gobernuen politika ekonomikoak baldintzatzeko gai izan ez eta norbere ardurak besteen bizkar gainean jartzen dituen? •

Keynesianismo pandemiko hau parentesi labur bat izango den edo uhin luzeko joera baten hasiera ote den ez dago idatzita